

DROGETEN ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 298. zenbakia. 2021eko martxoa



**Gure gazteak
sasoi betean**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatuia.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatuia.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapuetetan:

10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amara Arginzoniz,
Estibalitz González,
Asier Ibaibarriaga
Jon Saez,
Libe Solozabal,
Dorleta Vidal
eta Irati Yarza.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ibon Errazu. Emakumeen
Harri-jasotze Txapelketaren
finala (Aia, 2020ko abuztua).

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López, Markina
Learreta Eskola eta
Valentín Mugarza.

ARGAZKIAK:

Koldo Aranberria, Eibar KE,
Eduardo Fernández,
Karmele Gisasola, Estibalitz
González, Andoni Isusi,
Eztitxu Larrea, Mallabiko
Udala, Markina Learreta
Eskola, Arantza Moreno,
Valentín Mugarza,
Paula Ortega, Unai
Rodríguez, Libe Solozabal,
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ayoub Hdidou
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: maitasun kantua

Udaberrian abiatu nintzan (Entzuteko: www.alboka.es)

- Udaberrian abiatu nintzan
dama gazte bat bilatzen (2),
Atia kox-kox jo nion eta
ez ziraden erantzuten (2).

- Errespuesta hartu eta gero,
gaztia zer nahi zenduke? (2).
- Zure gustua horrelan bada,
biok lo egingo genduke (2).

- Aita guria tabernan dago,
ama berriz sukaldian (2).
- Hamen ataian egongo gera
haiek lotara artian (2).


- Hor ataian hotza egiten du,
hotzitu egingo gera (2).
- Nere mantia zabaltzen badet
biok tapatuko gera (2).

- Zuk ere tira nik ere tira
apurtu eingo genduke (2).
- Gure herrian mantak badaude
berriak diruan truke (2).

- Atia dago tirri eta tarra
txakurra berriz zaunkaka (2).
- Atiarena nik egingo det
txakurra norek isildu? (2).

- Nik txakur hori isildutzeko
eper bizia bialdu (2).
- Eper bizia harrapatzeko
mutil mantsoa zera zu (2).

Tranla lara la la la la la lalarala lalai...



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Paula Ortega (Herbehereak)	ZAHARRAK BERRI.....16 Eduardo Fernández "Kalimero"
ELKARRIZKETA5-7 Eztitxu Larrea	ESKOLEN TXOKOA.....17 Markina Learretako berriak
MALLABIAN ZER?8-9 Eibar KEko Kirol Hiria Areitien	IRITZIA18 Osasuna
ERMUAN ZER?10 AEK Euskaltegien kanpaina	BOTEPRONTOAN19 Cecilio Sedano
MOTZEAN11 X. Zuhaitz Eguna	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA12-13 ZukAldatuk urtebete egin du	ZORION-AGURRAK21 Saldu, erosi edo agurtu
KIROLZALE.....14 Ermuko eta Mallabiko kirolariak	APIRILEKO AGENDA22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Paula Ortega Araiztegi

Bi urtetako kimikako masterra egitera joan zen Herbehereetara eta, doktoretza egiteko aukera ikusi zuenean, beste lau urtetarako han gelditzea erabaki zuen Paula Ortega ermuarrak.

- *Duela zenbat denbora joan zinen Ermutik?*

Laugarren urtea da jada hemen bizi naizena! Masterra atzerrian ikasi nahi nuen, ingelesa menperatzeko eta munduko edozein txokotako jendearekin komunikatu ahal izateko, eta Groningeneko Unibertsitateak eskaintzen zuenak konbentzitu ninduen.

- *Erabaki erraza izan zen?*

Urtebete Granadan bizi ostean, beste hiri batzuk ezagutzeko gogotsu nengoen, beraz erabakita neukan. Hori bai, hasieran hona moldatzea ez zen erreza izan.

- *Nola imajinatzen zenuen leku hura?*

Banekien herrialde laua zela eta bizikleta asko erabiltzen zela, baina ezin nuen imajinatu aldapa txiki-riren bat ere ez zela egongo. Holandarrak pertsona oso

ireki eta ongi hezituak zirela pentsatzen nuen, eta 4 urteren ostean... zalantzan nago!

- *Zerk harritu zaitu gehien?*

Banekin janaria ez zela oso ona, baina arreta eman zidan holandarren eguneroko bazkariak: gazta xerra bat bi ogi tartean. Bestalde, eguraldiarekin etxean moduan sentitzen naiz: euria eta euria, kar-kar!

- *Ondo moldatzen zara bertako hizkuntzarekin?*

Nederlanderaz eta ingelesez egiten da. Ailegatu nintzenean ingelesa justu-justu hitz egiten nuen, baina hila-bete gutxitan menperatu nuen. Gainera, orain dela urte eta erdi nederlandera ikasten hasi nintzen, eta zailena jendearekin hitz egitea da: ia denek bi hizkuntzak menperatzen dituz-



tenez, zalantzan ikusten bazaituzte ingelesez egiten ditzute.

- *Zerbait botatzen duzu faltan?*

Asteburuetako mendi bueltak, janari ona, familia eta lagunekin poteoak.

- *Nolakoa da zure egun arrunt bat?*

Bizikleta hartu eta lanera noa, kimikan doktoretza egiten ari naiz unibertsitatean. Han pasatzen dut denbora gehiena astean zehar, baina topatzen ditut kirola egiteko, musika jotzeko eta lagunak ikusteko tartearik ere. Abendutik aurrera, koronabirusaren arauak oso

zorrotzak dira, eta dena itxita dago.

- *Noiz egon zara Ermuan azken aldiz? Noiz bueltatuko zara?*

Gabonetan joan nintzen, nahiz eta gobernu holandarrek ez zuen gomendatzen bidaiatzea. Maiatzean ere astebete joatea gustatuko litzaidake... baina uste dut udara arte itxaron beharko dudala.

- *Uste duzu Ermura bizi- tzera bueltatuko zarela?*

Ikerkuntzaren munduak norra eramango zaituen jakitea zaila da, baina Euskal Herrian amaitzea espero dut.

Libe Solozabal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Eztitxu Larrea, fisioterapeuta laguntzaile itsua:

“Nire begiak, nire eskuak dira”

Hogeita hamazortzi urteko ermuar hau bi urte zituela itsutu zen erabat eta, ordura arte ikusitako gauza oso gutxi gogoratzen dituen arren, usaimena eta batez ere ukimena garatuz bete du ikusmen zentzumenaren falta. “Ikusi” hitza naturaltasun osoz darabil eta begien laguntza gabe gauzak “ikusteko” dituen bideak ezagutzeko aukera izango dugu, egunerokotasunean topatzen dituen muga eta erronketan murgilduz. Bere ahotik jasoko dugu izandako formakuntza eta fisioterapeuta lanaren berri, ezagutzu baita Ermuko kaleetako oztopo arkitektonikoak edo teknologia berriek ekarri dizkioten abantailak.

- **Betidanik izan zara itsua?**

Ez, buruko tumore baten ondorioz bi urterekin itsu geratu nintzen. Zazpi urterekin balbula bat jarri zidaten buruko likidoak kanporatzen laguntzen didana eta gaur arte.

- **Argitasuna, koloreen intentsitatea... nabaritzen dituzu?**

Ez, batere ez, ez dut ezer ikusten, baina primeran moldatzen naiz. Esate baterako, dilistak edo indabak, zer jarriko duzun bazkaltzeko igarriko dut, gordinik daudenean platerean jaustean egiten duten soinu desberdinagatik. Arropa erosterako orduan, bada oihalen ehundurari erreparatzen diot; praktetan, ostera, botoiei... gero galdeetzen dut zer kolore den eta kito! Internetez ere ondo moldatzen naiz. Nire mugikorak ahotsa dauka eta deskribatu egiten dizkit gauzak: "Praka gris iluna, alboetan poltsikoekin, ez dakit zein neurrikoa...". Gero amari erakusten diot eta berak ematen dit azken gomendioa, zeren gerta daiteke deskribapenean gustatu izana, baina gero ez izatea nire estilokoa. Amak berarentzako arropa erosi behar duenean nirekin joatea nahiago du, dioenez aukeratzeko laguntzen diodak; ahizpak ere alabei esaten die aukeraketa kontuetan asko lagundu ahal diedala.

- **Zein zentzumen daukazu garatuago?**

Usaimena eta ukimena. Ez baduzu ikusten, azkene-

an usaindu behar duzu, ukitu...! Orain joaten naiz den-detara eta, pandemia dela eta, amak esaten dit: "Ez ezazu hainbeste ukitu! Esadazu zer nahi duzun!". Eta beti berdina erantzuten diot: "Ama, zuk ikusten duzu, nik ez! Eta gainera, zelan esango dizut zer nahi dudanez ez badakit zer dagoen!".

- **Gertuko pertsonak, zeren bitartez desberdintzen dituzu?**

Euren ahotsengatik noski, baina baita duten usainarengatik, arnas-hotsetik... Nire lobek ezkutaketara jolasten dute nirekin eta ikusi barik asmatzen dudanean zein gelatan dauden, aho zabalik geratzen dira!


- **Pertsona baten ahotsak bere izaeraren pistak eman ahal dizkizu?**

Bai, askotan, eta baita bere adina eta altueraren gainekoak.

- **Egunerokotasunean laguntzarik behar duzu?**

Bai, kiroldegira edo pasiatzera joateko. Ermua ez da hiri bat esan dezakezuna irtengo naiz eta erosketak neuk bakarrik egingo ditut: espaloi estuak, jendez gainezka, fruta-denden kutxak kanpoko aldean, tabernen terrazak ez beti lekua soberan dagoen puntuetan, goizetako zamalanak, kotxeak txarto aparkatuta... oso zaila egiten da ibiltzea. Egun osoa bastoia eragiten eta mesedez baztertze esaten egon beharra, haserre banengo bezala, ez da gozo-gozoa!

- **Daramazun makilak zer-tan laguntzen ditu?**



Eskailerak igo eta jaisten, eta traban dauden gauzak aurreikusten. ONCEn erakusten digute bastoiarekin zelan gidatu.

- **Zeintzuk dira zure begiak?**

Nire eskuak. Eta hankak.

- **Etxeok berba asko egiten dizute. Eta zuk galdera asko, ezta?**

Bai, larregi batzuetan, kar-kar! Ez badut galdetzen ez naiz enteratzen, eta gustuko dut jakitea.

- **Non egin zenituen oinarrizko ikasketak?**

Teodoro Zuazua ikastetxean, Braille sistemarekin. Alfabeto guztia, zenbakiak eta azentu-markak barne, 6 puntutxoren bitartez ikasi eta irakurtzeko aukera edukit dut. Gainera itsuok orde-

nagailuan jartzeko programa bat dugu, ahotsarekin; nik ordenagailuan idazlanak eta denetik idatzi ditut.

- **Zer ekarri dizu teknologiaz?**

Buenooo, onura asko! Mugikorra, ordenagailua, PC habladora... Hau esaterako makina txiki bat da, nik esaten dudana inpresora batera pasatzen duena eta lanerako oso ondo etorri zitzaidana. Ez dut pentsatu nahi mugikorra izorratzen zaidan egunean!

- **Laguntza bai ONCE erakundearen bitartez?**

Ez da hain erraza. Lana eskatzera zoazenean, Lanbiden esaten dizute ONCera joateko; eta ONCEn, Lanbidera... ONCEn lan egiteko, bitxia bada ere, ezin zara itsua izan, hori da euren



Drogeteniturrri, 298 zk.

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**OSASUNA · ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

aurreneko baldintza; beste edozein urritasun fisikok balio du.

- Lana aipatu duzu lehen. Zer ikasi zenuen?

Fisioterapia laguntzailea, kiromasajea eta errehabilitazioa. Eskeleto bat laga zidaten hezurak-eta ikasten joateko; ikusten ez dugunok erreferentziak behar ditugu eta beste bide batzuetatik barneratzen joan ezaguera. Lana egin dut Santurtzin, Sestaon eta Etxebarrin, oso gustura, esperientzia bezala asko balio izan dit.

- Entzunda dut Athleticekin ere ibilia zarela...

Bai, beka bat lortu nuen eta fisioterapeuta batekin praktikan egon nintzen Bilboko El Fango kiroldegian. Athleticen kiroldegi desberdinetan Sorbi-deak ditu, entrenatze-guneak; ni halako baten egon nintzen, gaztetxoekin, kanterako mutikoei masajeak ematen, eta oso pozik!

- Lanean orain?

Ez, langabezia. Orain hilabete inguru elkarrizketa baterako deitu zidaten; joan nintzen eta ikusi zutenean itsua nintzela, elkarrizketatu aurretik, lekua estuegia zela niretzat eta ez nintzela ondo moldatuko. Aitzakia merkeak! Aukerarik ere ez zidaten eman! Baina tira, lasai hartu nuen!

- Gustatzen zaizu norbaiten ondoan joatea?

Bai, baina askotan pentsatzen dut gauzak bakarrik egin nahi ditudala edo nonbaitera laguntasun barik joan nahi dudala. Sarritan esaten didate autobusean bakarrik joan ahal naizela Bilbora. Bai, eta zelan jakin autobusaren zenbakia edo norabidea, ez badaukate Braillerik? Beti laguntza eske egon beharrek nekatu egiten nau! Elkarte batean egon nintzen orain sei urtera arte: hizketaldiak, jolasak, txangoak... gauza piloa egiten genuen eta asko lagundu zidan, astebururo lagunekin egoteko aukera neukalako. Baina pixkanaka-pixkanaka proiektua pikutara joan zen.

- Jarraitzen duzu haiekin harremanetan?

Guztiekin ez, baina lagun bi ditut, bata Astigarragan eta bestea Urretxun, eta noizean behin geratzen gara hitz egiteko, elkarrekin egoteko...

- Zure egunerokotasunean, zer egitea gustatzen zaizu gehien?

Kozinatzea, ariketa fisikoa, irakurtzea eta eskulanak. Sukaldean gutxi ibiltzen naiz, baina leka-patatekin, porrusaldarekin edo makarroekin polito moldatzen naiz. Zartaginak eta presio-lapikoak beldur handiagoa ematen didate. Liburuak, oster, Bilboko ONCE-tik ekartzen ditut, Eibarkoan ez daude-eta. Kotxean ekartzen nau aitak, topera, igual bi maletekin, Brailleak asko okupatzen duelako. Euskaraz asko irakurtzen dut; Braillean material asko dago euskaraz. Egia esateko, egunerokotasuna gustatzen zait; espazio desberdinetara egokitzea kosta egiten zait hasieran eta, nire aisialdian leku asko ezagutu ditudan arren, lasai asko irakurtzen egon naiteke gusturen.

- Zerk haserretzen zaitu?

Gauzak egin nahi eta ezin dudanean; neure kaxara ibiltzea atsegin dut, autonomia izan, neuk erabaki... Egia esateko, gero eta gehiago egiten dut!



- Badago zerbait egin nahi eta lortu ez duzuna?

Bai, ikasketak amaitu nituenean, erizaintza laguntzailea ikasi nahi nuen, baina esan zidaten praktikaldian sueroa jarri behar nuela, ohean zegoen jendea mugitu... ezinbestekoa zela ikustea eta ezin nuela egin. Tira ba, beste zer edo zer aterako zela pentsatu nuen. Masaje zirkulatorioaren ikastaro bat egin nuen haren ostean. Ondo prestatuta egotea gustuko dut!

Estibalitz González



- Gaur gauza asko ikasiko ditugu.

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
 2012 ko BILBOKO
 TXORIZO TXAPELLETAN
 BIZKAIKO
 TXAPELDUNAK
 PROBLEMU 3-943170563
 ERMUA

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Eibar KEak eraikiko duen Kirol Hiria aurkeztu da Mallabian


Eibar Kirol Elkartek Areitio eraikiko duen Kirol Sistema Orokorren proiektua aurrera doa, eta egunotan herritarrei begirako pausuk ematen ari dira. Otsailean bilera burutu zen herrian, eta horrez gain iritzia eman eta ekarpenak egiteko prozesua abiatu da.

Eibar Kirol Elkartek 2018ko urrian jakinarazi zuen bere jabetzako kirol-azpiegiturak eraikitzeko asmoa zuela. Baita non kokatuko zituen ere: Mallabiko Areitio auzoan. Orduetik legeak eskatzen dituen trami-teak betetzen joan da, eta gaur egun prozesu horren 4. eta 5. faseen artean dago (guztira 9 urrats dira).

Mallabiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPON) egin behar diren aldaketak erredaktatuta, partaidetza publikoari tartea egiteko unea heldu da. Alde batetik, bilera informatiboa burutu zen otsailaren 18an Kontzejuzarrean. Bertan Eibar KEko gerentea den Jon

Ander Ulaziak parte hartu zuen eta, informazioa emateaz gain, bertaratutakoen galderei erantzuna eman zien, gehienak trafikoarekin lotuta, eragin ekonomikoarekin, enpleguarekin, azpiegiturekin, eta Kirol Hiria eta Mallabiko erdigunea lotuko dituen bidearekin, non iragarritasuna bermatuko den.

Horrekin batera, panel informatiboak jarri dira Kultur Etxean, herritarrek proiektuaren nondik norakoak aztertzea ahal izateko, eta Udalaren webgunean (www.mallabia.eus), albisteen atalean, dokumentazio osoa ikusi eta deskargatzeko aukera dago. Dokumentazioarekin batera, iritzi-inkesta dago



eskuragarri, nahi dutenek iritzia azaldu eta ekarpenak egiteko.

Balmenak lortu

Prozesu parte-hartzaile hau martxoaren 31n bukatuko da, eta horrekin batera ekingo zaio 5. faseari. Fase horretan herritarren eta erakundeek ekarpenak aztertzea eta hasierako onarpenarako proposamena egingo da. Horretarako, nahitaezko txostenak landu dituzte dagoeneko: telekomunikazioei dagokiena, URAketa eta AE-NArena, hala nola berdintasunarekin eta euskararekin

lotutakoak ere (azken horiek herriko elkarteek jorratu beharrekoak). “Herriko Nahikari Emakume Taldeak proiektua aztertu du, eta dagoeneko horren leku arriskuak identifikatuta ditu —Mallabiko alkate den Igor Aguirrereren esanetan—. Euskarari dagokionez, Eibar Kirol Elkartek Euskara Plana dauka, eta hark agintzen du seinale guztiak euskaraz eta gazteleraz agertu behar direla”.

Era berean, erakunde ezberdinetako baimenak lortu beharko dira, eta horretan dihardute jadanik, baina lan

FUB
Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

SPARA
ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI www.spara.es
info@spara.es

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

RIF

ITURGINTZA KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

honek “urtebete pasatxo” iraungo duela azaldu du alkateak, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Estatuko Gobernua-ren oniritziak lortu behar dituztelako, besteak beste. Eta haiek guztiek aurkeztutakoa ontzat ematen dutenean hasiko dira obrak, bi urteko iraupena dutenak. Beraz, “bizpahiru urte beharko dira Kirol Hiria martxan ikusteko”, adierazi du alkateak eta nabarmendu du, proiektu hau oso garrantzitsua dela Mallabiaren garapenerako, tartean ostalaritzarentzat eta kultur taldeentzat: “Eibar taldeak ez

du nahi bakarrik Kirol Hiria eraiki, baita herriko kultur taldeekin elkarlana sustatu ere. Eta jada futbito taldearekin, dantza taldearekin eta pilota eskolarekin jarri da harremanetan. Izan ere, Eibarren ere talde ezberdinak diruz laguntzen ditu Eibar KEak: errugbi taldea, abesbatzak... eta Mallabian ere eredu berdina proposatu du”.

Proiektuaren nondik norakoak

Kirol Hiri berriak 12 hektareako eremua izango du gutxi gorabehera, eta bertan 5 futbol-zelai arrunt eraikiko dira:

Zona eraikigarriak. Deskribapena eta parametro urbanistikoak

A eremuak hartzen du barne lehendik dagoen eraikina non klubaren administrazio-Jarduerak eta lehen taldearekin lotutako jardura publikoak garatuko diren, eta kafetegi-jantoki bat langile pribatuaren zein publikoaren erabilerrako, denda txiki bat eta garbitzeko zerbitzu osagarriak, biltegiak, instalazio-gela, etab. Lehendik dagoen eraikinetik gertu, erabilera esklusiboko eraikin berri baterako lekua gordetzen da, gizezkoen lehen taldearentzat. Haren programak talderako hornidurak eta partida ofizialen aurreko kontzentrazioetarako 25 logela inguru ditu, baita instalazio-gelak eta biltegiak ere.

Eremu horretan erreserbatzen den eraikigarritasuna, guztira, 3.600 m²-koa da sestra gainean eta 4.400 m²-koa sestra azpian.

B eremuak 1 eta 2-3 zelaien artean dagoen harmailtako eraikina dago eta honako erabilera hauek ditu: partida ofizialearako aldagelak eta beheko kategorietarako soilik diren beste erabilera batzuk (oinarritako futboleko aldagelak eta entrenatzailak, gune medikoak, fisioterapia, gimnasioa, bulegoak, komun publikoak, instalazio-gela, kirol-materiala, etab.).

Eremu horretan erreserbatzen den eraikigarritasuna, guztira, 3.000 m²-koa da sestra gainean eta 2.200 m²-koa sestra azpian.

C guneak ureztatzeko biltegi bat du. Sestra azpiko 740 m²-ko eraikigarritasuna gordeko da, eta sestra gaineko 400 m²-ko erreserba egingo da elementu osagarrietarako.

D eremuak lorezaintzako eta zelaien mantentze-lanetako materialaren biltegiarako gordetako espazio bat du. Eremu horretan erreserbatzen den eraikigarritasuna, guztira, 250 m²-koa da sestra gainean.


E eremua biomasa-biltegiarako erreserbatutako gune bat da. Eremu horretan erreserbatzen den eraikigarritasuna, guztira, 200 m²-koa da sestra gainean eta 460 m²-koa sestra azpian.

F eremuan kiroldegiko eraikinerako erreserbatutako eremu bat dago, eta bertan 1.330 m²-ko eraikigarritasuna erreserbatzen da.

zelai bat kategoria profesionaletan dauden gizezkoen eta emakumezkoen partidak jokatzeko, bi zelai azpiko kategoria guztiek erabiltzeko (gaur egun herri ezberdinetan entrenatzen duten 18 talde inguruk) eta beste bi zelai futbol profesionaleko lehen taldearen entrenamenduak burutzeko. Horiekin batera beste bi zelai txiki eraikiko dira, bat atezainen kaiolarako eta bestea kirol anitzak praktikatzeko.


Futbol-zelaiez gain, eraikiko dira: 25 logela dituen egoitza, harmailak, gimnasioa, aldagelak, bulegoak, kafetegi-jantoki bat langileentzat eta publiko orori zuzenduta, denda txiki bat, mediku eta fisioterapia kontsultak, lorezaintzako eta zelaien mantentze-lanetarako materialaren biltegiak, eta 260 kotxe eta 8 autobusentzako lekua duen aparkalekua.

Dorleta Vidal



Infografía: Mallabiko Udala eta Eibar Kirol Elkartea.

FEREDU SOLUTIONS S.L.



- * HEZETASUNAK
- * ERREHABILITAZIOA
- * INPERMEABILIZAZIOAK
- * MANTENIMENDUAK
- * IGOGAILUAK
- * ERREFORMAK
- * FATXADAK
- * ITE
- * TEILATUAK
- * GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

Euskaltegiei bultzada ekonomikoa emateko dinamika abiatu du AEK-k

Euskal Herriko herri guztiak zeharkatzen egon beharko litzatekeen Korrika bertan behera geratzeak zuloa eragin du AEK Euskaltegien aurrekontuan. Egoera horri aurre egiteko "Bultzada euskaltegiak! Bultzada euskara!" kanpaina jarri dute martxan, eta horren barnean ekitaldi bat burutuko da Ermuko plazan martxoaren 28an.

COVID-19aren eraginez atzeratu da bi urtetik behin burutzen den Korrika egitasmoa, eta euskaltegien sareko arduradunek banku bidezko finantzaketaren bitartez eman diote erantzuna erabaki horren eraginez sortutako arazo ekonomikoari. "Zorpezte horri ere aurre egin beharko diogu, eta herritarren sostengua nahi dugu", adierazi dute. Babes hori "Bultzada euskaltegiak! Bultzada euskara!" kanpainaren bitartez gauzatuko da, eta horrek

euskalduntze-mugimenduari garrantzia ere plazaratuko du.

Kanpainak hiru ardatz ditu: administrazioaren eta eragileen inplikazioa, ekitaldi xumeak eta ekarpen ekonomikoak. Lehen atalean, administrazio nagusiekin eta eragileekin harremana sustatuko da, haiek aurrerapauso gehiago emateko euskalduntze-mugimenduen esparruan.

Bigarren ardatzaren helburua izango da ekintza xumea



burutzea Euskal Herriko hainbat herritan aldi berean, martxoaren 28an, 12:00etan. Momentuz 65 gune lotuta daude, eta horietan guztietan segurtasun-neurriak bermatuko dira. Ermuan ere elkarretartzea egingo da plazan, eta nahi duten herritar guztiek parte hartu ahal izango dute.

Azkenik, Korrikaren galera-ri aurre egiteko, herritarrek diru-ekarpenak egin ahal izango dituzte AEK.eus/ekarpenak webgunean. Bertan, gainera, kontagailua dago, eta egindako ekarpen guztien kopurua ikusi daiteke zuzenean.

Dorleta Vidal

Ugaro asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusibok:

Allianz 
Seguros

Super A, Txabi Arnalen lan berria



Neskato baten bizitzan egun arrunta da gaurkoa. Baina Super A-k atsegin du superheroi ausart bat dela imajinatzea, eta eguneroko errutina betebeharrak zorigarria bihurtzen daki. Berak ez dakiena da, ordea, superheroia dela benetan! Nola bestela aurre egin neskato baten egun arrunt bati, ume guztiek dituzten superbotereekin ez bada? Txabi Arnalek horrela aurkeztu digu bere ipuin berriko protagonista superra. Gazteleraz eta katalanez, La Guarida argitaletxearen eskutik plazaratu berri du, eta Mercè Galí ilustratzailea izan du bidaia-lagun.

200 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute Artarraik antolatutako Zuhaitz Egunean

Anaitasuna Ikastolako, Ongarai Eskolako, Eskolabarriko eta San Lorenzo Eskolako talde banak eta Ermua BHIko lau taldek parte hartu dute Artarrai Mendi Taldeak urtero antolatzen duen Zuhaitz Egunean. Hamargarren edizio honetan, aldaketa nabarmenak egon dira egitasmoan. Izan ere, orain arte mendizaleek eta natura babestu nahi

zuten guztiek jaiegun batean Joxioko zelaietan egiten zuten bat (Sallabenten) zuhaitzak landatzeko. Aurten, baina, COVID-19ak eraginda, eskoletara eraman dute ekimena Artarraiko arduradunek, eta eskola-ordutegiaren barruan Joxiora joan dira ikasleak 200 bat zuhaitz landatzera: gehienak pagoak, baina baita haritzak, intxaurreak, gereziak, hurritzak eta urkiak ere. Ekintza honen bitartez, Artarrai Mendi Taldeak nabarmendu nahi du zuhaitzek gizadiarentzat duten garrantzia, eta naturaguneak babesteko beharrez kontzientziatu nahi dituzten herritarrak, “batez ere gazteak”, azaldu dute. “Kontutan izan behar dugu basoek gure planetan duten eragina, besteak beste: CO₂ren isurketaren aurka, berotegi-efektuaren eraginean, basamortutze prozesuan, bioaniztasunari eustean eta ura eta airearen kalitatearen kontrolean”, adierazi dute.



ANDONI ISUSI ESPAINIAKO TXAPELDUNORDE TXAKUR KROSEAN



Andoni Isusi ermuarrak eta bere txakur Baltok bigarren postua eskuratu zuten Ólvegan (Soria) burututako 2021eko Espainiako Mushing txapelketan, otsailaren 27an eta 28an. Larunbatean, 4,300 kilometroko zirkuituan jardun zuten, eta ermuarrek bertako errekorra hautsi zuten, 2,41 min/kmko eritimoarekin. Haien atzetik, 20 milisimetara, Javier Sánchez valentziarra eta bere txakur Alpha heldu ziren helmugara. Garaipen horri esker, domekako saioan lehenak irten ziren Andoni eta Balto eta, 6 kilometroko zirkuituan zehar, Sánchezek eta Alphak bakarrik aurreratu zituzten ermuarrak. Horrela, bigarren postua lortu zuten, txakur krosetako Espainiako txapel-dunorde titulua eskuratuz. Lasterketa bukatutakoan Isusik aitortu zuen asko disfrutatu zuela, eta bere sare sozialen mezuen bitartez argi geratu da: “Bistan da gero eta maila altuagoa dagoela kategoria guztietan, eta hori ona da gure kirolarentzat”.



AMAIA VILLAR MERINO

2021eko martxoaren 9an



ANAITASUNA IKASTOLAKO IRAKASLE,
LANKIDE ETA GURASO ELKARTEA

*Saminez eta minez beterik
negarrez eta ezinez
zauri bat utzi diguzu, Amaia
sendatzen zaila zin-zinez.
Abaleginduko gara biguntzen
maitasunaren dohainez
Ikastolari eman diozun
bizitza baten ordainez.*

ZukAldatu, urtebeteko bidaiarik elikadura burujabetzarantz

2020ko martxoan abiatu zen ZukAldatu proiektua, Ermuko 5 ekintzailek bultzatuta. Bertan bertokoa eta sasoiaren sasoiak lemapean, gertuko ekoizleen produktuak eskaintzen dituzte Torrekua kalean duten dendan.

Diskurtsotik ekimenera salto egiteko nahian oinarritzen da ZukAldatu egitasmoa. Izan ere, duela urte pare bat inguru, herrian zeuden gabezien azterketa egin zen Ermuan. Azterketa hura prozesu parte-hartzailea izan zen, eta agerian utzi zuen merkatu barik herria “hankamotz” geratzen zela. “Ohi bezala Udalari eskaera bat egin beharrean —azaldu dute ZukAldatuko kideek—, herriarrok eraikitzen hasteko momentua zela pentsatu genuen: Elkartu gaitezten eta egin dezagun”.

Berehala ekin zioten lanari, eta 2019ko urrian Olatukoopereko Koopfabrikan hasi ziren formazioa jasotzen, hau da, kooperatiba txikiak martxan jartzeko laguntza

eskaintzen duen programan. Formazio oso zabala jaso zuten, kontabilitate hasi eta kideen arteko harremanen zaintzaraino, eta 2020ko martxoaren 5ean dendaren aurkezpena egin zuten. Zoritarrez, laster etorri zen koronabirusak eragindako itxialdia, eta produktu-otarraren bitartez funtzionatu behar izan zuten hilabete batzuetan, uztailean dendaren atea parez pare zabaldu ahal izan zituzten arte.

Bertako apaletan sasoiak produktu freskoak topatu zitezkeen, barazkiak batez ere: gertukoak, modu jasangarrian ekoiztikoak, pestizidarik gabekoak (edo oso gutxirekin), ekoizleari prezio justuan erositakoak... Handik gutxira, frutarekin handitu zuten produktu-aukera; eta



azken hilabeteotan, elikagai galkorrez gain, oso bestelako produktu ekologikoak gehitu dituzte: pasta, edariak, algak, kontserbak edota menbrilloa, besteak beste. Horien guztien artean, porruak, tomateak, gazta, yogurrak eta patatak nabarmentzen dira, salmentei erreparatzen bazaie.

Dena den, proiektu honen ikurra saltokia bada ere, egitasmoaren beraren helburuak anitzak dira. Besteak beste erakustea elikadura ez dela bakarrik jatea, produktua balorean jartzea, eta baita ger-

tuko harremanak sustatzea ere, hiru norabidetan: erosleekin, ekoizleekin eta bestelako proiektuak martxan jarri nahi dituztenekin.

Erosleekin harremana

COVID-19aren eraginez aurreikusitako ekimen batzuk baztertu behar izan dituzten arren, ZukAldatukoek argi daukate ez dutela nahi erosleak erosle hutsak izatea. “Urtaro bakoitzean bazkideekin biltzeko asmoa genuen, zein produktu jasoko diren azaldu, bezeroek zeintzuk nahiko lituzketen esan, taile-

Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi
Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77 ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Desiak
PSIKOLOGIA
ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA
Nahia Rojo Bustinduy
Psikologoa eta Sexologoa
Hitzorduak: 688 85 18 95

rrak egin, denda aldatzeko proposamenak jaso... baina momentuz bertan behera utzi behar izan dugu dena”, azaldu dute kideek.

Eta etorkizunean bilera horiek deitzean, nortzuk agertuko dira? Hau da, nortzuk dira ZukAldatuko bezeroak? Denetik dago. “Uste genuen gure inguruko militantek izango zirela bezero nagusiak, baina bai zera! Horrela hasi baginen ere, jendea urruntzen joan da, eta haien orde ezegun pilo bat etorri zaizkigu. Hasieran oso gazteak, baina orain nagusiagoak ere: jubilatuek, euren seme-alaben elikaduraz arduratutako gurasoak, beste herri batzuetatik Ermura lanera datozen irakasleak, tabernariak...”.

Beharbada, lehen urteko balorazioa oso positiboa den arren, azken adierazpenek nolabaiteko gazi-gozotasuna mahaigaineratu dute. “Proiektua martxan jarri aurretik, honen premia zegoela ematen zuen. Baina zabaldu eta gero, premia hori ikusten zutenek jarraitu dute lehenengo leketan erosketak egiten. Ez dugu ulertzen”, kexatu dira. Hain zuzen jakitun dira erosketak ohiturak aldatzea kostatu egiten dela, beste batzuk lotsa aipatzen dutela,

produktu ekologikoak izanik garestia izango delakoan dau dela besteak, behar duten guztia ez dutelakoan denda topatuko... Aurreiritziak, azken finean. “Gure atea guztientzat zabalik daude, eta txipa aldatzen joan behar da. Gure produktu batzuk beste leku batzuetan baino merkeagoak dira, eta gaur egun ia denetik daukagu. Halaber, kontuan izan behar da hemen erosita, gure inguruko ekonomia bultzatzeko hautua egiten dugula”, gogorarazi dute.

Ekoizleen sarea

Aipatutako harremanen bigarren hanka ekoizleak dira, haien esparruan ere eragiteko xedea baitu ZukAldatuko: ekoizleen saretxoa sortu nahi dute, eta baserri bizi direnen kopurua handitu eta haien etorkizuna bermatu. Baina hortxe topatu dute zailtasunik handienetarikoak: ekoizle falta. “Gure inguruko baserriak nagusiak dira, eta ekoizpena azoketara bideratzen dute, edota ezagunei saltzen dizkiete produktuak zuzenean. Gainera, Eusko Jaurlaritzak ez die inolako erraztasunik ematen”, salatu dute.

Horrekin lotuta, onartzen dute hornitzaileen kopuruan gorabeherak izaten dituztela urtean zehar, eta negua ez



ZukAldatuko egungo kideetako batzuk.

dela garairik oparoena. Hala, urritik martxora zazpi-zortzi hornitzaile dituzte, indartsuenak Zornotzan, Bakion, Lekeition, eta Berrizen, baserri bizi bizimodua ateratzen dutenak. “Inguruko baserriak lursail txikiak izaten dituzte, ez daukate berotegirik eta udaberria ekiten diote uztari, tomatearen garaian, kar-kar!”, azaldu dute.

Beste proiektuen babesle

Azkenik, proiektu berriei bultzada emateko gogotsu dago ZukAldatu, euren baloreekin bat datozen proposamenei hain zuzen ere. Haiei laguntza eskaini nahi diete, eta horretarako euren batzar-txokoa eta ezaguerak partekatzeko eta zabaltzeko prest daude. Eta zeintzuk dira balore horiek? Elkarte ho-

nen babesle jaso nahi duten proiektuak duinak izan behar dira: “Gure kasuan badakigu gure produktuak nondik datozen, nork eta nola ekoiztu dituen, zein baldintzatan...”. Era berean, proposamen horizontalak izan behar dira: “Guk bileretan erabakitzen dugu dena. Bazkideek boluntarioak gara, eta bai guk, bai langileek eta baita laguntzaileek ere, bileretan parte hartzen dugu”.

Horrez gain, ZukAldatuko kideek ezaugarri hauek nabarmentzen dituzte proiektu berriei begira: jasangarritasuna, euskaraz egindakoak izatea, egonkortasuna, zaintzak kontuan dituztenak... Azken batean, egungo eredu kapitalistatik kanpo dauden ekimenak.

Dorleta Vidal

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA

PALACIOS SM

EMPRESA INSTALATZAILA BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Bitsi-denda Tailer propicia Erloju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com · joyeriasenen@gmail.com

Zure publizitatea:

DROGETEN ITTURRI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com

Horacio Decoración


VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dgdecoracion.com

IAPIZERIA · ALTZARIAK · OSAGARRIAK

Ermuko eta Mallabiko kirolariak ezin hobeto

Arantza Morenok Espainiako txapelketa irabazi du xabalina-jaurtiketan

Arantza Moreno atleta ermuarrak urrezko domina lortu zuen Jaurtiketa Luzeko Espainiako XI. Neguko Txapelketan, 58,94 metroko jaurtiketari esker. Denboraldiko bere jaurtiketarik onena izan da, eta munduko 5. luzeena. Otsailaren 27an burutu zen txapelketa Montijon (Badajoz), eta Morenok erakutsi zuen sasoiaren dagoela: sei jaurtiketatik, bost izan ziren balekoak, eta guztiek gainditu zituzten 50 metroak (bosgarrena izan zen laburrena, 50,85 metroekin). Bere atzetik geratu ziren Lidia Parada (53,80 metro) eta Carmen Sánchez (51,16 metro). Barzelona FC taldeko kirolariak zazpi bider jarraian irabazi du txapelketa hau, eta bertako errekorra hautsi du aurtien. Bixia bada ere, aurreko errekorra ere berak zuen. Iaz ezarri zuen marka Motrilen (Granada): 58,44 metro.



Julene Bouzo Espainiako txapeldunordea da gorako jauzian

Julene Bouzo Agirregomez-korta atleta ermuarrak zilarrezko domina irabazi zuen Málaga burututako XLVIII. 20 urtetik beherakoen Espainiako Atletismo Txapelketan, gorako jauzien diziplinan. Martxoaren 6an egin zen txapelketa, eta Julenek 1,74 metrotara zegoen langan gainera salto egin zuen. Ez zuen ordea 1,76 metrokoa igaro, eta Una Stancev atletak irabazi zuen txapela 1,79 metroren gainera salto egin eta gero. Horrez gain, Bidezabal klubeko atleta ermuarrak urrezko domina lortu zuen otsailaren azken asteburuan Donostian burututako Euskadiko Txapelketan. 20 urtetik beherakoen kategorian lehiatu zen, eta 1,74 metroko langa igaro zuen lehen aldiz, bere marka pertsonala 4 zentimetrotan hobetuz. Urtarrilean ere, bere marka hautsi zuen, Euskadiko Txapelketa absolutuan 1,70 metroak gainditu eta gero.



Karmele Gisasolak Euskadiko eta Bizkaiko Ingude-jasotze Txapelketak irabazi ditu

Karmele Gisasolak, "Zelai III."-k, sasoiaren ekin dio 2021ari. Urtarrilean, 2020ko Ingude-jasotze Txapelketa burutu zen Traña-Matienako pilotalekuan, eta berak lortu zuen txapela, minutu eta erdian 10 kiloko ingudeari 97 altxaldi eman eta gero. Altxaldi kopuru horrekin, Maika Ariztegiren eta Virginia Finolen markak hautsi zituen, eta errekor berria ezarri. Otsailaren, mallabitar honek Bizkaiko Txapelketa irabazi zuen Diman, 93 altxaldi egin eta gero. Hilabete berean, 100 kiloko bola altxatu zuen Mallabian, eta martxoaren 7an omenaldia egin zioten herri berean bere lorpenak goiraipatzeko. Aurrera begira, ekainaren 20an emakumeen lehen pentatloian parte hartuko du, Tolosako zezen-plazan, eta bertan parte hartzeko diziplina ezberdinetan entrenatu behar du, tartean txingetan eta korrika egiten.



Eneko Larreak zilarrezko domina irabazi zuen Espainiako txapelketan

Eneko Larrea atleta mallabitarak Pista Estaliko XLVIII. 20 urtetik beherakoen Espainiako Txapelketan parte hartu zuen martxoaren lehen asteburuan (Málaga), gorako jauzien diziplinan. Txapeldunorde izan zen bertan, 2,04 metroko salto egin eta gero, eta bere entrenatzailea den Antonio Ciden esanetan, oso emaitza ona den arren, Enekok txapelketa irabaztea aurreikusten zuten. "Eneko faboritua zen, eta horregatik oso erlaxatuta joan zen txapelketara, gehiegi —dio Cidek—. Marka oso ona bada ere, Europako txapelketetarako sailkapen minimoa lortzea espero genuen, 2,10 metro". Txapelketa honekin pista estaliko probak bukatu dira, eta Eibar-ko Klub Deportiboko kirolari honek apirilaren bukaeran ekin die aire zabalekoei, klubaren arteko ligarekin.



quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiáurre, 2 | 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

ileapaindegia
Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

688819336

Ermuko Haurreskola:

“Haurreskolan umea da gunea eta bere garapenaren eragilea”

Duela 17 urte zabaldu zen Ermuko Haurreskola, eta ordutik 0 eta 2 urte bitarteko ehunka ume izan dira bertan. Txikiei egokitutako espazio zabalak eta lantalde egonkorra dira zentro honetako ezaugarri nagusiak.

- Zer dela-eta jarri zen martxan Ermuko Haurreskola?

Eusko Jaurlaritzaren eta Ermuko Udalaren artean sinatutako hitzarmenari esker sortu zen Haurreskolak Partzuergoa, 2004ko irailean. Bere helburua da 0 eta 2 urte bitarteko umei hezkuntza-zerbitzu osoa eskaintzea, hala nola laguntza-soziala, lana eta familia bate-ratzearen arloan lan egitea, hain zuzen ere.

- Nortzuk osatzen duzue bertako lantaldea?

Oposaketak atera zirenetik, lantalde finkoa eta profesionala gara, eta tartean daude Haur Hezkuntzako teknikoa, irakasleak eta psikopedagoak. Guztiok dugu EGA titulu eta esperientzia zabala.

- Zer nolako harremana duzue bertara doazen umeekin?

Aipatutako lantalde egonkor horri esker, hezitzaileon eta umeen artean lotura sendoak sortzen ditugu, benetakoak. Guretzat umea gunea da, eta bera da bere

garapenaren eragilea. Bidaia horretan, behatzaileak eta gidariak gara hezitzaileok. Etxean bezala gaude, eta bai umearekin bai familiarekin gertuko harremana dugu. Hori horrela izateak izugarri pozten gaitu!

- Umeei egokitutako azpiegiturak dituzue?

Jakina, garapena sustatzeko ezinbestekoa da espazio egokiak eta zainduak eskaintzea, umea askatasunez mugitu ahal izateko. Mugimenduetan, jarreretan eta desplazamenduetan trebatuz, umeek mundua esploratu dezakete eta euren buroarenganako konfiantza eta segurtasuna gailentzen doa. Zalantzarik gabe, Ermuko Haurreskolan espazio anitzak eta zabalak ditugu.

- Zeintzuk dira zehatz-mehatz espazio horiek?

Kanpoko patioa, esperimentazio tailerrak egiteko gela, psikomotritate gela, 0-1 urte bitarteko umeentzako 3 gela eta 1-2 urte bitartekoentzako beste 3 gela, bakoitza bere aldagelekin



eta komunekin. Guztiak daude diseinatuta umearen autonomia suspertzeko, eta haren mugimendu askeak ahalbidetzeko. Horregatik, umea gustura dago bertan, seguru sentitzen da, eta konfiantza eta aurrera egiteko gogoak pizten zaizkio.

- Bistan dago mugimendu askeari berebiziko garrantzia ematen diozuela...

Bai, baina ez bakarrik mugimenduari. Psikomotritateak eta norberak jasotzen dituen esperientziak ere oso garrantzitsuak iruditzen zaizkigu. Horregatik, esperimentatzeko eta sentsazio ezberdinak ezagutzeko tartea eskaintzea ezinbestekoa da guretzat. Ura, elurra, hostoak, gelatina, pasta, ogi-birindua... aukera ematen diegu nahi duten neurrian elementu horiekin jolasteko. Betiere haien gogoia eta erritmoa errespetatuz. Halaber, autonomia lantzeko eguneroko errutinak aprobe-txatzen ditugu (jatorduak, loa, higiena...).

- Zenbat ume daude gela bakoitzean?

0 eta 1 urte bitarteko gela bakoitzean 8 ume daude gehienez, eta 2 hezitzaile. Urtebete eta 2 urte bitartekoetan, aldiz, 13 ume eta 2 hezitzaile.

- Zein da Ermuko Haurreskolako ordutegia?

7:30etik 17:00etara. Dena den ordutegia 18:30era luzatu daiteke, gutxienez 3 familiek hala eskatzen badute. Sarrera eta irteera orduak malguak dira, eta familia bakoitzaren beharretara egokitzen gara.

- Eta prezioa?

Errentaren arabera egiten dira ordainketak, eta doan izatetik 208 euroaraino heldu daitezke. Familien egoera ere kontuan izaten da, eta bi anai-arrebek izena ematen badute (bikien kasuan, esaterako), kuota bakarra kobratzen dugu.

- Noiz zabalduko da hurrengo matrikulazioa epea?

Irailean hasi nahi dutenek, apirilaren 12tik 21era eman beharko dute izena. Aldez aurretik gure proiektua eta azpiegiturak ezagutu nahi dituztenek, gurekin jarri daitezke harremanetan, hitzordu bat adosteko. Gure telefonoa: 943 17 64 31, webgunea: www.haurreskolak.eus, helbide elektronikoa: ermua.ermua@haureskolak.eus eta Facebook: Ermuko Haurreskola. Berehala hasi nahi dutenak ere gurekin jarri daitezke harremanetan edozein momentuan, baditugulako plaza libreak.



Eduardo Fernández, "Kalimero": Garai bat markatu zuen udaltzaina

Ourense jaioa duela 73 urte.
Zazpi neba-arreben artean zaharrena.
30 urte eman zituen udaltzain gisa.
Bere kasko eta motorrarekin, zalantzarik
gabe garai bat markatu zuen.

- *Nolatan hasi zinen udaltzain gisa?*

Tornulari moduan egiten nuen lana, baina Frankoren heriotzaren ostean, greba gogorak hasi ziren eta enpresak itxi ziren, tartean nire. Orduko udaltzain buruak ezagutzen ninduen eta motorrean patruilatzeko udaltzaina behar zuela esan zidan, hala animatu nintzen. 27 urte nituen orduan. Nirekin batera beste 2 sartu ziren.

- *Zer garai bizi zituen Ermuak?*

Hazkunde bete-betean zegoen. Inguruko herrietara joatean "Ermua city, ciudad sin ley" esaten zidaten. Dena zelako kaosa, aparkalekurik ez, hiria hankaz gora...

- *Askok gogoratzen duguzure genio bizia...*

Bai, izaera handiko pertsona izan naiz! Errez hase-rretzen dena baina, gaseosa



bezalako, berehala lasaitzen dena.

- *Ezkerrean eskua eta eskuinean borra...*

Kontu handia izan behar izaten nuen udaltzain gisa lana egiterakoan. Batzuetan nahikoa zen mehatxua egitea, bestela ez zegoen orde-na jartzerik. Bestetan multa soil batek dena konpontzen zuen.

- *Gogoan zaitut goizero Kaltxangon. Areitio, Eibar, Mallabia bidegurutzean...*

Ez zen batere lan erraza. Jende askok nahi zuena egiten zuen, trafiko handia egoten zen lehen ordu horietan. Ez dakit nola ez ninduen kamioren batek akabatu!

- *Estualdirik pasa zenuen noizbait?*

Estualdi larririk ez, baina denetik pasatu izan zait. Garai haietan ez zen Ertzaintzarik eta Guardia Zibilak ere ez zeukan herrietan ekiteko eskumenik, beraz, dena zegoen gure esku. Kalabozoa ere bagenuen.

- *Gogoratzen duzun liskarren bat?*

Asteburuetan Eibartik jende asko etortzen zen, eta Alaska tabernan makina bat borroka izaten ziren. Baten baino gehiagotan borroarekin



sartu behar izan nuen borroka geldiarazteko.

- *Nondik datorkizu "Kalimero" ezizena?*

Gaur egun 50-55 urte dituen jendeak jakingo du horren berri. Egunero San Antonioko bidegurutzean umeak eskolara pasatzeko trafikoa zuzentzen egoten nintzen. Garai haietan telebistako marrazki bizidunetan bazen Kalimero deitzen zen pertsonaia bat, eta haren antza omen neukala esaten zuten umeek. Geroztik, "Kalimero" ezizena nirekin daramat.

- *Julio Kageta taldeak hala zioen bere kanta batean: "Kalimero es un pistolero"...*

Eta nik orduan ere ez nuen txarrera hartu. Badakit maliziarik gabe egindako keinua dela, eta normala iruditzen zait hala irudikatzea. Julio Kageta taldekoei gogorarazten diet disko bat oparituko zidatela esan zidatela, baina ez zutela beraien hitza bete.

- *Jubilatu ostean, zertan ematen duzu denbora?*

Argazkizale eta bideozale amorratua naiz. Ermuari buruzko 600 argazki izango ditut. 40 urterekin hasi nintzen horretan. Txanpon eta paper kolekzioak ere egiten ditut.

- *Euskaraz zer moduz moldatzen zara?*

Ulertu pixka bat, baina hitz egiteko ez dut gaitasunik. Koadrilan euskaldun asko eduki arren, ezin buruan sartu.

- *Gaur egungo udaltzainaren lana nola ikusten duzu?*

Oso ezberdina da. Ez dago kalabozorik, salaketak Ertzaintzak kudeatzen ditu, binaka doaz (gu banaka)... Askok aldatu dira ardurak.

- *Besterik?*

Gauzak maitasunez eta ondo egin izanaren sentsazioa daukadala. Hanka sartuko nuen, baina nire lana ahalik eta ondoen egiten saiatu naiz beti.

Asier Ibaibarriaga

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Martxoaren 8a ospatu dugu



Aurten ere, Emakumearen Eguna ospatu dugu eskolan. Urtero bezala, emakumeak bistaratu nahi izan ditugu eta aurten emakumeak eta baserria izan dugu gaitzat.

Ikastetxera morez jantzita etorri gara denok eta ekintza desberdinak egin ditugu. Hori bai, COVID egoerak eskatuta neurri bereziekin.

Alde batetik HH eta LH1-2ko ikasleekin Martxoak 8aren zergatia landu da geletan, haiek dakitena azalatu eta denen artean gauza berriak ikasiz. *Susterrak* bideoa ikusi dute: Durangaldeko abeltzaina den Amaiak ardiei buruzko eta bere bizipenei buruzko bideo zoragarria. Ostean *Arturo eta Klementina* ipuina irakurri dute.



LH2. eta 3. zikloan ere Martxoaren 8aren zergatia aztertu da, eta *Erroa eta geroa* bideoa ikusi eta komentatu da.

Jolastorduan talde bakoitza bere eremuan jarriz *Konplize ditut* abestia antzestu dugu keinu hizkuntzaz, eta gero geletan emakumearen sinboloaren brotxea egin dute.

Goizean zehar baserrian aritu izan diren herriko bi emakume etorri dira ikasleei euren esperientziak kontatzera. Argi ikusi da emakume horien lan zama handia dela: baserrikoa, etxe barrukoa eta zaintza lanena ere.

Aurreko egunetan eskolako familien laguntzarekin Mallabioko emakume baserritar desberdinen biografien txartelak egin ziren eskolan. Ikusgai egon ziren asteburuan herriko frontoian, eta gero Martxoak 8rako erakusketa eskolara ekarri zen.

Emakume eta baserrien grafikoak aztertu ditugu

Baserrien titularrak eta lanaldien banaketaren grafikoak aztertu genituen geletan.

Grafikoak aztertuz gero, estatistika ofizialek erabiltzen dituzten datuekin emakumeak egiten duten lana gizonena baino txikiagoa dela ikusi da. Beraz, ez dator bat denboraren erabilerari buruzko inkesta kualitatiboagoekin, non egiaztatzen baita emakumeen lanaldia gizonena baino handiagoa dela.

Egoera honek ondorioak izan ditu emakumeek nekazaritza barruan dituzten eskubideak eta betebeharrak aitortzean, bere nortasun profesionalen, eta eragin handia izan du emakumeek laguntza publikoak eskatzeko orduan.

Emakume baserritarrak diskriminazio hirukoitza izan dute :

- Emakumeak izateagatik.
- Elikadura bezalako oinarriko eskubide bat urratzeak dakarren diskriminazioa.
- Nekazarien jardunaren gutxiespena dela-eta.



Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA



URRETA burdindenda

- * *Etrea*
- * *Tresneria*
- * *Brikolajea*
- * *Ervailak*
- * *Giltzak*
- * *Sarrailagintza*
- * *Kit altzariak*

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Osasuna

Osasuna, Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, ongizate fisiko, mental eta sozial egoera osoa da, eta ez gaixotasunik eza soilik. Osasuna gorputzaren, gogamenaren eta gizartearen arteko egonkortasuna da. Osotasuna da, norbanakoak testuinguru sozialaren, bere buruaren eta fisikoaren artean lortzen duen oreka. Oinarritzko beharrak asetzen dituen bizitza, bizitza osasuntsua da.

Gure osasun sistema ordea, isuri sistema da. Organismoari soilik erreparatzen dio, gorputzari bakarrik. Eta bazter uzten ditu norbanakoaren osasun mentala, eta are gehiago soziala. Utopikoa da ia bizitza osasuntsua ingurugiro

gaixo batean. Emozioak erreprimitu, pertsonak bakartu eta minak errezetatzen dira. Distopikoa da bizitza hutsalak bizitzeko barneak hustea, oinarritzko beharri-zanak alboratzea.

Ezin dugu norbanako bat ulertu bere beharrak eta ingurua ulertu gabe. Norbanakoa gizarte bizi da eta sozializatzeko beharri-zana du. Gobernuko politikek, beraz, ez dituzte aintzat hartzen osasunaren parametroak barne hartzen dituen hainbat faktore. Gizarte politikek populazioaren zati handi bat babesgabetzen dute. Kontraesankorra da inoiz baino informazio eta baliabide gehiago ditugun aro honetan, nola ez zaion eskuratu den jakintza guztiari jaramo-



Libe Solozabal

nik egiten. Modernizazioak badu zahartzerik.

Badaude baliabideak, modu desorekatuan erabiltzen dira aldiz. Teknologia izugarri aurreratua denon esku dago, erabilera kaxkarra da berriz. Informazio mordo da dago, komunikazioa eskasa da ordea. Dena oso konektatua dago, baina ez dago mugikortasunik.

Onartu behar dugu harreman-tzeko era derrigorrean aldatu edo moldatu behar dugula, elkar zainduduz. Komunitatean bizi garela eta interdependentek garela, batak bestearen beharra dugu. Nork bere burua zaintzeak albokoarena eta inguruarena zaintzea esan nahi duela.

“ Oinarritzko beharrak asetzen dituen bizitza, bizitza osasuntsua da ”

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriazaskun@gmail.com
peluqueriazaskun.wordpress.com

Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a tí

Dña. OLATZ GARCÍA ARREGUI Cof. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04
info@clincicasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

CECILIO SEDANO

- Noiz galdu zenituen gurasoak?

Bi urte nituela aita, eta 8 urterekin ama. Tutore batzuk hartu gintuzten, eta 8 urterekin Murgiako eskola batera bidali ninduten, Araban. Bi urte egon nintzen bertan, tutoreek ordaintzen laga zuten arte.

- Gustura egon zinen bertan?

Ez. Oso txarto tratatzen gintuzten, baina gogoan daukat sarreran pasillo luzea zegoela, eta amaieran piano bat. *Doce cascabeles* jotzen nuen bertan.

- Nora joan zinen orduan?

Larrabeako baserri batera iritsi nintzen, bakarrik, non zumea mozten jardun nuen 12 urte bete arte. Aian agertu nintzen gero, eta 13 urterekin, penaz-edo, Zarautzko karrozeria batean hartu ninduten lanerako. Oso gustura egon nintzen bertan.

- Zer dela-eta utzi zenuen?

El Aaiünen soldadutza egin eta gero, soldatzaile bezala hasi nintzen lanean Orion, lagun baten bitartez. Karrozerian baino 10 bider gehiago irabazten nuen, 1.500 pezeta asteko.

- Nola heldu zinen Ermura?

Eibarko boomaren garaia zen, eta Ermuan karrozeria bat jartzeko proposamena egin zidaten. Autopistaren sarreraren parean jarri genuen, 3 bazkideren artean. Lan asko genuen, baina ez zen errentagarria. Otaolako Seatekoak bi bider etorri ziren nire bila, eta haiekin joan nintzen.



Quecedon jaio zen (Burgos), duela 78 urte. Bi arreba nagusi ditu, eta bat gazteagoa. 10 urterekin heldu zen Larrabeara (Araba), umezurtz. 55 urte daramatza Ermuan, bi seme ditu eta 38 urtez egin du lan kontzesionario batean.

- Zein lan egiten zenuen Seaten?

Txapista hasi nintzen, baina berehala egin ninduten istripu-saileko arduradun.

- Zer egiten zenuen lana bukatutakoan?

Kirola: Sallabenteko edo Batzokiko frontoian pilotan jokatu, korrika egin, bizikletan ibili, mendian...

- Arrebekin harremanetan jarraitzen duzu?

Bai, hasieran kontaktua galdu genuen, eta berreskuratu gero. Sestaon, Durangon eta Arrasaten bizi dira.

- Eta nola ezagutu zenuen emaztea?

Sallabenteko karrozeriaren parean bizi zen. Berak egin zuen egin beharrekoa!

- 51 urtez lan egin eta gero, nola eraman zenuen erretiroa?

Oso gaizki, estutasun itzelarekin. Malkoak ateratzen zitzaizkidan lanean. Oraindik ere noizbehinka joaten naiz bitan.

- Zertan ematen duzu orain denbora?

Mendian, beti. Inguruko mendi gehienetan egon naiz, eta Gorbeia eta Txindoki ditut gustuko.

- Urko...

2021ean 60 bider baino gehiago igo naiz jada. Gustua hartzen zaionean...

- Zein menditara joan nahiko zenuke?

Europako mendietara, baina min daukat belaunezurretan.

- Mendira joateko, bakarrik edo lagunekin?

Nahiago dut beste batekin joan, baina ez da erraza bikotekidea aurkitzea, erritmo eta forma berdintsua izan behar delako.

- Kirolen baten jarraitzailea zara?

Athleticekoa topera! Bazkidea izan nintzen hamar bat urtez.

- Zinea, telebista, irratia...

Kultura orokorreko lehiaketak gustatzen zaizkit.

- Jatun ona zara?

Bai, denetik jaten dut.

- Baduzu akatsik?

Asko hitz egiten dudala, eta emazteak dio burugogorra naizela.

- Eguneko zure momentua?

Arratsaldean, menditik bueltan, tabernara joan, kafetxea hartu eta purutxoak erretzen dudanean.

- Bizitzako egunik zoriontsuena?

Aurreneko semea jaio zenean.

- Ondo moldatzen zara teknologia berrieekin?

Ez, beranduegi heldu dira.

- Berririo jaioko bazina...

Atleta edo mendizale profesionala izan nahiko nuke.

Dorleta Vidal

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299

**MALLABIA
1971**

Argazki hau 1971 inguruan aterata dago Eibarko zezen-plazan. Gereako Gosiña baserriko Jacinto Basterretxea "Kaxin" ahariari helduta ageri da. Beste aldean Jose Osoro, "Kaxin"en koinatua, Elgoibarkua. Bertan egin zuten ahari-jokoa.

"Kaxin" horrelako apustuen zalea zen. Harri-jasotzen ere hainbat apustu jokaturakoa. Behin Bolibarren bere pisuaren bikoitza altxatu baietz apustu egin omen zuen. Apustua egitera joan zenean konturatu zen harriak simaur pila bat zeukala, labain egoteko. Lehenengoan ez omen zuen altxatu, ez ziotelako utzi harria sikatzen, baina bigarrenengoan lortu omen zuen 125 kiloko harria jasotzea. Esaten zuten prest omen zegoela edozein euskalduni apustua egiteko pisu doblera. Beste behin Trabakun ere egin omen zuen apustua Goitaetxebarriko Joaquinen kontra, hau ere irabazi omen zuen.

"Kaxin" Ameriketara artzai egon zen 3 urtez. 3.000 ardiko artalde zaintzen omen zuen. Karroan egiten zuen lo, eta gauetan orduero esnatu behar izaten omen zen, ardiak gurdiaren inguruan zeudela ikusteko.

**ERMUA
1921**

Andrazkoak. Lurrera arteko gona argiz edo beltz ilunez jantzitako emakume gazte eta zaharragoak... guztiak patxada ederrean jezarrita eta umez inguratuta. Orain 100 urteko ermurrak.

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Eskuz egindako
terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

LAN BILA

Ermuko neska gazte euskalduna eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. 14:30etik aurrera. Oporretan egun osoz.
© 648 62 52 09

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.
© 681 31 09 89.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
© 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
© 632 41 53 74.



Martxoaren 12an
Zorionak Amaiur! 7 urte! Zelako neska handi egin zaren. Etxeko guztion partez patxo handi bat, asko maite zaitugu.



Otsailaren 12an
Zorionak Mare zure 11. urtebetetzean!! Zarena izaten segi luzaroan eta muxu asko etxekoan partez. Oso maite zaitugu, politxori!!



Zorionak Intza!!
Martxoaren 29an 4 urte handi beteko dituzu. Muxu potolo bat familia guztiaren partez.



Martxoaren 24an
Zorionak Ihintza!!!! Muxu eta besarkada pila familia osoaren partez!!!



Apirilak 12an
Zorionak Nahia! 6 kandela jada zure pastelxoan, neska handi! Jarraitu horren alaia eta martxosa izaten! Patxo eta besarkada erraldoia bat, Oihanen partez bereziki! AMZ



Martxoaren 21ean
Zorionak Mai zure ekipoaren partez! Patxo bat.



Martxoaren 18an
Zorionak Pol! Zure hirugarren urtebetetzean. Muxu erraldoiak familia guztiaren partez. Oso maitagarria zara, eta frontoiko txapelduna!



Martxoaren 3an
Zorionak Ane! 27 urte! Zein gaztea zaren! Oso pozik egotea espero dut. Asko maite zaitugu. A eta O.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua helbide honetara:

drogeten@gmail.com

Azken eguna: **Apirilaren 21.**



Eder (martxoaren 12an) eta Markel (martxoaren 15ean)
Zorionak Eder eta Markel familiaren partez.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral
arral97.com

Luis Cañas Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell

Grupo Yllera
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pernord Ricard Wines
Faustino García Martínez.

FAMILIA
LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINERIAS

T.943176075

arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

ZINEA

Hilaren 3tik 6ra
Hilaren 10etik 13ra
Hilaren 17tik 20ra
Hilaren 24tik 27ra

Zehaztu gabeko filmak.
Ermua Antzokian.
19:00etan.
Antolatzailea:
Ermuko Udala.

ZINE-KLUBA

Hilak 1
Hilak 8
Hilak 15
Hilak 22
Hilak 29

Zehaztu gabeko filmak.
Ermua Antzokian.
19:00etan.
Antolatzailea:
Ermuko Udala.
Laguntzailea:
Mudo-drogot
cinematografo.

**UMEENTZAKO
ZINEA**

Hilak 4
Hilak 11
Hilak 18
Hilak 25

Zehaztu gabeko filmak.
Ermua Antzokian.
17:00etan.
Antolatzailea:
Ermuko Udala.
Laguntzailea:
Mudo-drogot
cinematografo eta
Ateneo Libertarioa.

MUSIKA

Hilak 23:
Kontzertua:
Carmen Boza.
19:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 10 €.
Antolatzailea:
Ermuko Udala.

**ANTZERKIA**

Hilak 16:
"Las aventuras del buen
soldado Svejk",
Zutegi taldearen
eskutik.
19:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 8 €.
Antolatzailea:
Ermuko Udala.



Hilak 30:
"El patio de mi casa",
Pez limbo
taldearen eskutik.
19:00etan.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 10 €.
Antolatzailea:
Ermuko Udala

**UMEENTZAKO
EKITALDIAK**

Hilak 10:
Umeentzako
ipuin-kontaketa.
17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.
Antolatzailea:
Ermuko Udala.

Hilak 24:
Umeentzako
ipuin-kontaketa
ingelesez.
17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.
Antolatzailea:
Ermuko Udala.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
**Bainugelen erakusketa**
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS


- Toldoak
- Ostalarizarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXETRESNAK
**Egaña**
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA
**BETA**
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Kalefakzioa
- Instalazioak
- Gaueko tarifa
- Erreformak
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

GARBIKETA
**enolimp**
GARBIKETA ZERBITZUAK
Tel: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-mail: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)
Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com



Edukiontzian horien EZ bota plastikoz egindako edo zer gauza
ONTZI ARINAK BAKARRIK

Azken hilabeteetan, edukiontzian hondakin desegoki ugari atzeman dira eta horrek arazoak eragin ditu birziklatze-prozesuan.



Plastikozko eta beste materialetako objektuak

Etxeko tresneria, tupperak, txartelak, lonak...

Garbitasun pertsonaleko produktuak

Eskola eta ofinako materialak

Iraungitako sendagaiak eta ontziak

Tresna elektronikoa eta kableak



ONTZI ARINAK BAKARRIK
plastikozkoak, latak eta brikak

